



# Aitorpenetarako zerrenda Aitorpenetarako laburpena

*Oharra: Argitalpen hau informazioa emateko baino ez da, zerga betebeharrak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen laguntzeko.*

*Informazio hau gorabehera, fakturak egitean, TicketBAI fitxategiak sortu, sinatu eta bidaltzean eta zerga aitorpenak aurkeztean, unean-unean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.*

## Garrantzitsua:

**TBAIn islatzen den informazioa TBAI fitxategietan jaso diren fakturei buruzkoa baino ez da. Beraz, TBAI betebeharraren mende ez dauden eragiketak/fakturak badaude edo sistemak baztertu baditu, ez dira kalkuluetan jasoko. Honako hauek, hain zuzen:**

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia (konpentsazio agiria).  
PFEZean jarduera ekonomikoaren etekinak ez diren lokalen alokairuak.  
TicketBAI betebeharra EZ duen hartzaile batek jaulkitako fakturak.  
Onartutako salbuespenak.

## Sortzapen aldiaren araberako informazioa eskuratzen da, ez jaulkitze dataren araberakoa.

Oro har, egiten den kalkulu teknikoan, **ERAGIKETAREN DATA**ri dagozkion likidazio ekitaldiari eta hilabeteari esleitzen zaizkio eragiketak.

Zenbait salbuespen daude, eta horiei **BIDALKETA DATA**ri dagozkion likidazio ekitaldia eta aldia esleitzen zaizkie:

- R1, R2, R3 eta R5 faktura zuzentzaileak (14, 15 ez den BEZaren araubidearen gakoaren dutenak).
- F1, F2 eta R4 motako faktura negatiboak (banakapen guztiak negatiboak, VT zenbateko ez-zergapekoa izan ezik), 14, 15 ez den BEZaren araubidearen gakoaren dutenak (administrazio publikoak/segidako traktua).

**Horregatik, aldi jakin bateko zerrendan ez dira bistaratuko adierazitako kalkulu teknikoarekin bat ez datozen fakturak.**

**Zergadunaren erantzukizuna da likidazio ekitaldi eta aldi zuzenak zehaztea.**

## Aitorpenetarako laburpena

### Aitorpenetarako laburpena

#### Sortzapen aldia

- Urtekoa Urtea  
2023
- Hiruhilekoa
- Hilekoa

**Aitorpenetarako laburpena** \*\* Egun honetara arte sartutako datuetatik lortutako aitorpenetarako laburpena: 2025/11/26

Aukera honetan, **TBAI fitxategietan jasotako informazioa multzokatzen da, eta 303/390 erduen aurrekalkulua egiten da** (ez 322 eta 353 ereduak).

**Hilaren, hiruhilekoaren edo urtearen arabera egin ditzakezu kontsultak. Ordezkoak aurkeztu badira, BEZaren Zerbitzuak onarpen izapidea bete ondoren erakutsiko dira.**

Bilatu 🔍



- FakturAraba
- FakturAraba
- Bidalitako fakturak kontsultatzea
- Aitorpenetarako laburpena
- Aitorpenetarako zerrenda
- Erroreak kontsultatzea
- Proba bertsioak
- Berrietara harpidetzea

Kalkuluetan **ez dira kontuan hartzen:**

- **Errore oso larriak** dituzten fakturak; aparteko laukitxoetan jakinarazten dira.
- Faktura erraztuak **ordezteko jaulkitako fakturak (ordezko fakturak)**.
- Faktura **baliogabetuak**.
- **Sistemak atzera botatako** fakturak.
- **2024tik aurrera 14 gakoarekin** jaulkitako fakturak.



Aitorpenetarako laburpena \*\* Egun honetara arte sartutako datuetatik lortutako aitorpenetarako laburpena: 2024/01/31



### SORTUTAKO BEZ-A

AURKEZTUTAKO AUTOLIKIDAZIOA



TICKETBAIREN ARABERA KALKULATUA



AUTOLIKIDAZIOKO INFORMAZIO LAUKIAK



TICKETBAIREN ARABERAKO INFORMAZIO LAUKIAK



*Oharra: Zergadunaren erantzukizuna da autolikidazioak aplikatu beharreko araudia betetzea, TicketBAI fitxategia ezetsi den edo edozein motatako erroreak dituen alde batera utzita.*

*1. oharra: Zergadunak egindako eta jakinarazitako eragiketen BEZa jasotzen da.*

*2. oharra: Lauki batzuk gris agertzen dira, daturik gabe, ez baitago informazio nahikorik horiek betetzeko.*

### TICKETBAIKO BESTELAKO INFORMAZIOA

INFORMAZIO GEHIGARRIA. SALBUESPENA DELA-ETA BEZ-ETIK SALBUETSITAKO FAKTURAK



INFORMAZIO GEHIGARRIA. ZERGAPEAN EZ EGOTEAGATIK BEZ-ARI ATXIKITA EZ DAUDEN FAKTURAK



INFORMAZIO GEHIGARRIA. EZ-ZERGAPEKO EDO SALBUETSITAKO ERAGIKETEN OINARRI ZUZENDUAK



INFORMAZIO GEHIGARRIA. AURREKO KALKULUETAN EZ DIRA JASO ERRORE OSO LARRIAK DITUZTEN FAKTURAK. \*\* Errore oso larriak dituzten fakturen guztizkoak



### BESTE ARAUBIDE BATZUK

NEKAZARITZA ETA ARRANTZAREN ARAUBIDE BEREZIA



Informazioa honela banatzen da: **araubide orokorra eta araubide bereziak** (baliokidetasun erreargua; erraztua; nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza).

## SORTUTAKO BEZ-A

### AURKEZTUTAKO AUTOLIKIDAZIOA ^

\*\* Laukien zenbakia: 390 ereduari dagokiko

Autolikidazioen zenbakia  Ordezko autolikidazioa

### Araubide orokorra

| Zerga oinarria |                | Tasa |         | Kuota |              |
|----------------|----------------|------|---------|-------|--------------|
| 202            | 70.346,00 €    | 203  | % 0,00  | 204   |              |
| 380            |                | 381  | % 2,00  | 382   |              |
| 01             | 5.990,00 €     | 02   | % 4,00  | 03    | 239,60 €     |
| 205            | 5.867,50 €     | 206  | % 5,00  | 207   | 293,38 €     |
| 383            |                | 384  | % 7,50  | 385   |              |
| 804            | 4.324.320,25 € | 805  | % 10,00 | 806   | 432.432,04 € |
| 807            | 110.083,60 €   | 808  | % 21,00 | 809   | 23.117,58 €  |

### TICKETBAIREN ARABERA KALKULATUA

Araubide orokorreko 303/390 ereduako likidazio lauki en informazioa aurkezten da.

**SORTUTAKO BEZ-A**

| AURKEZTUTAKO AUTOLIKIDAZIOA                       |         |        | TICKETBAIREN ARABERA KALKULATUA                   |         |        |
|---|---------|--------|---|---------|--------|
| Autolikidazioen zenba                             |         |        |   |         |        |
| Ordezko autolikidazio                             |         |        |   |         |        |
| <i>** Laukien zenbakiak 390 ereduari dagozkio</i> |         |        |   |         |        |
| Araubide orokorra                                 |         |        | Araubide orokorra                                 |         |        |
| Zerga oinarria                                    | Tasa    | Kuota  | Zerga oinarria                                    | Tasa    | Kuota  |
| 307.025,21  | % 0,00  | 0,00   | 189.733,44  | % 0,00  | 0,00   |
| 22.579,00   | % 2,00  | 451,58 | 22.759,00   | % 2,00  | 455,18 |
| 0,00  | % 4,00  | 0,00   |   | % 4,00  | 0,00   |
| 0,00  | % 10,00 | 0,00   | 0,00  | % 10,00 | 0,00   |
| 450,00  | % 21,00 | 94,50  | 45,00   | % 21,00 | 9,45   |
| Araubide orokorreko oinarriak eta kuotak aldatzea |         |        | Araubide orokorreko oinarriak eta kuotak aldatzea |         |        |
| Zerga oinarria                                    |         | Kuota  | Zerga oinarria                                    |         | Kuota  |
| -   |         | 0,00   | -   |         |        |
| Hartzekodunen konkurtoa                           |         |        | Hartzekodunen konkurtoa                           |         |        |
| Zerga oinarria                                    |         | Kuota  | Zerga oinarria                                    |         | Kuota  |
| -   |         | 0,00   | -   |         |        |

BEZaren aitortpena aurkezten dutenek aurkeztutakoa TBAiren arabera kalkulaturakoarekin alderatu ahal izango dute. Beraz, aurkezpenik badago, **aitortpenarekin batera** agertuko da, eta aurkezpenaren aurretik kontsultatzen bada, lauki horiek hutsik agertuko dira. **Ordezkoak** aurkeztu badira, azkena agertuko da, BEZaren Zerbitzuan onartzeko izapidea amaitu ondoren.

Administrazioak **likidazioa** egin badu, ez da horri buruzko informaziorik agertuko.

Excelen deskarga daiteke, beharrezkoak diren eragiketa matematikoak egin ahal izateko.




Aurreko koadroetan ez dira jaso errore oso larriak dituzten zergapeko eta salbuetsi gabeko fakturak

| Zerga oinarria | Kuota      | Baliokidetasun errekarguaren kuota |
|----------------|------------|------------------------------------|
| 25.181,00 €    | 3.074,00 € | 242,43 €                           |

\*\* Faktura horiek zuzendu egin behar dira (zuzentzailea/zuzendu aldatzea, kasuaren arabera)

Likidazio zatian, **errore oso larriak** dituzten araubide orokorreko **SALBUETSITAKO ETA SALBUETSI GABEKO** fakturen zenbatekoak erakusten dira. "Fakturak kontsultatzea" erlaitzean, errore mota bakoitzaren ondorioak ikus ditzakezu:

Faktura bakoitzean, ikono baten bidez adierazten dira honako hauek:

-  TicketBAI aplikazioan behar bezala jasotako faktura, eta baliozkotze guztiak betetzen ditu.
-  TicketBAI aplikazioan jasotako faktura, errore larriak dituena. Aitorpenetarako laburpenean kontuan hartzen da.
-  TicketBAI aplikazioan jasotako faktura, errore oso larriak dituena. EZ da aitorpenetarako laburpenean kontuan hartzen.

Adi! **Erroreak oso larriak** badira, teknikoki ezin zaizkio inongo laukitxori esleitu, eta, beraz, zenbait kutxatilan agertzen dira.

Atal honetan ZERGAPEKO FAKTURAK ETA SALBUETSI GABEAK erakusten dira.

| TICKETBAIREN ARABERAKO INFORMAZIO LAUKIAK   |     |            |
|---|-----|------------|
| Eragiketak Erregimen Orokorrean   | 153 |            |
| Kutxa irizpidearen araubide bereziko eragiketak, sortzapeneko erregela bereziaren arabera                             | 252 |            |
| Batasunaren barruko ondasunen eta zerbitzuen emateak  | 156 | 1.688,74   |
| Esportazioak eta bestelako eragiketa salbuetsiak kenketa eskubidearekin   | 157 | 0,00       |
| Eragiketa salbuetsiak, kenketa eskubiderik gabe   | 158 | 179.939,06 |
| Kargarik gabeko eragiketak, kokapen arauari jarraiki (salbuespena 216 laukian sartutakoak)                            | 214 |            |
| Zergari lotutako eragiketak, subjektu pasoboaren inbertsioarekin (salbu eta 156 gakoan jarritakoak)                   | 215 |            |
| OSS eragiketa ez-zergapekoak, lokalizazio arauengatik   | 216 |            |
| OSS eragiketa zergapekoak   | 217 |            |
| Ez-zergapeko/salbuetsitako erroterik gabeko eragiketen oinarri zuzenduak  |     | 0,00       |
| BEZA 78 eta 79 artikuluetan xedatutakoaren arabera baloratutako talde barruko eragiketak                              | 218 |            |
| Araubide erraztutako eragiketak   | 219 |            |
| Eragiketak nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian   | 154 |            |
| Eragiketak baliokidetasun errekaru erregimen berezian   | 155 |            |
| Eragiketak baliokidetasun errekaru erregimen berezian + erraztutako erregimen berezian                                |     |            |
| Erabilitako ondasunen, arte objektuen, antzinako objektuen eta bilduma objektuen araubide berezian eginiko eragiketak | 220 |            |
| Bidaia-agentzien araubide berezian eginiko eragiketak   | 221 |            |
| Ez ohikoak diren ondasun higiezinak eta finantza eragiketak ematea  | 212 |            |
| Inbertsio ondasunen entregak  | 161 |            |
| Eragiketen kopurua guztira  | 162 |            |

**Ereduen informazio laukiak** ere erakusten dira.

Kenkarirako eskubidea duten/ez duten eragiketa salbuetsiak.

**Gris** badaude, esan nahi du ez dagoela informazio nahikorik TBAIn modu automatizatuan bete ahal izateko.

TICKETBAIKO BESTELAKO INFORMAZIOA

INFORMAZIO GEHIGARRIA. SALBUESPENA DELA-ETA BEZ-ETIK SALBUETSITAKO FAKTURAK

| Salbuespen mota ^   | Oinarria    |
|---|-------------|
| Barne eragiketak (20. art.)   | 5.887,73 €  |
| Ondasunen esportazioak (21. art.)   | 5.988,20 €  |
| Zona frankoak, gordailuak, aduana eta zerga araubideak (23. eta 24. art.) | 504,00 €    |
| Europar Batasunaren barruko ondasun emateak (25. art.)                    | 1.687,74 €  |
| Beste salbuespen arrazoi bat  | 19.093,13 € |

INFORMAZIO GEHIGARRIA. ZERGAPEAN EZ EGOTEAGATIK BEZ-ARI ATXIKITA EZ DAUDEN FAKTURAK

| Zergapean ez egotearen arrazoiak  | Zenbatekoa  |
|---|-------------|
| BEZaren Arauaren 7. artikulua - Zergari loturik ez dauden beste batzuk    | 11.724,82 € |
| Ez-zergapekoa, 17. gakoa  | 220,00 €    |
| Ez-zergapekoa, lokalizazio arauengatik, eta IFZ-BEZ hartzailea (Ez 17)    | 1,00 €      |
| Ez-zergapekoa, lokalizazio arauengatik, eta ez IFZ-BEZ hartzailea (Ez 17) | 14.183,57 € |
| Ez-zergapekoa VT  | -358,99 €   |

INFORMAZIO GEHIGARRIA. AURREKO KALKULUETAN EZ DIRA JASO ERRORE OSO LARRIAK DITUZTEN FAKTURAK. \*\* Errore oso larriak dituzten fakturen guztizkoak

\*\* Errore oso larriak dituzten faktura guztiak adierazten dira, baita sortutako BEZaren autoikidazioaren koadroan adierazitako zenbatekoak ere.

\*\* Faktura horiek zuzendu egin behar dira (zuzentzailea/zuzendu aldatzea, kasuaren arabera)

|                  |             |                |            |  |          |
|------------------|-------------|----------------|------------|--|----------|
| Oinarria         | 63.039,97 € | Kuota          | 3.074,00 € | Baliokid. errekarguaren kuota          | 242,43 € |
| Oinarri zuzendua | -330,00 €   | Kuota zuzendua | -35,00 €   | Baliokid. errekarguaren kuota zuzendua | -1,00 €  |
| Faktura kopurua  | 83          |                |            |  |          |

Informazio gehigarria erakusten da, salbuesteko edo ez zergapetzeko arrazoiaren arabera.

Baita errore oso larriak (kuotarekin edo kuotarik gabe) dituzten fitxategien araubide orokorreko zenbateko guztiak ere.

## BESTE ARAUBIDE BATZUK

Lehen ikusitako araubide orokorrari buruzko informazio bera erakusten da, araubide berezien arabera banakatuta.

## Aitorpenetarako zerrenda

\* Egunean bost eskaera bakarrik egin daitezke  
\* Jaulkitzaile bakoitzeko gehienez ere hamar eskaera gordeko dira. Eskaera berriak egin ahala, historikoak ezabatuko dira.

### Sortzapen aldia

Urtekoa

Hiruhilekoa

Hilekoa

Guztiak

Hila

Iraila

Urtea

2025

Bilatu 🔍

Eskatu ➕

### Eskaeren zerrenda

EKITALDIA

ALDI MOTA

ALDIA

ESKAERA DATA

EGOERA

FITXATEGIA

Ez da emaitzarik aurkitu

TBAI fitxategietan jasotako informazioarekin, **zerga informazio garrantzitsua duten fakturen zerrenda** sortzen da, eta errore oso larriak dituzten adierazten da (gorriz).

**Zerrenda hori da aitorpenetarako laburpenera bidaltzen den informazioaren jatorria.**

Eskuratzeko, **kontsultatu nahi den aldiari dagokiona eskatu behar da (minutu batzuk behar dira).**

**Adi!** Lehenagoko eskaera baten ostean fakturazioan aldaketaren bat gertatu bada (adibidez, lehenagoko aldi bateko eragiketa data duen faktura bat jaulki da), **aldaketak** jasoko dituen zerrenda berri bat eskatu behar da.

Behin eskuratuta, **Excel dokumentu bat deskarga daiteke**, informazioarekin lan egiteko aukera ematen duena.

## Ohar garrantzitsuak:

- Zenbait zutabe dituen Excela deskargatzen denez, **iragazi** egin daiteke, faktura motaren eta eragiketa motaren arabera.
- Fakturak **erraztuak egunaren eta eragiketa motaren arabera** multzokatu daitezke.
- Lerro bakoitza **eragiketa mota** bati dagokio:
  - eragiketa motak: salbuesteko eta ez zergapetzeko arrazoiak eta zerga tasak.
  - Atzealde zuria/urdina txandaka erabiltzen da faktura baten eta beste baten lerroak bereizteko.
- Oinarria eta kuota **eragiketa mota**ri dagozkio.
- **Oinarria eta kuota zuzendua** erakusten dira (lerro bakoitzean guztizkoa bistaratzen da). Faktura batek zenbait lerro baditu, adibidez zerga tasa bat baino gehiago duelako, lerro bakoitzean oinarriaren eta kuota zuzenduaren datuak jasotzen dira.
- **Fakturaren guztizkoa**: lerro bakoitzean fakturaren guztizkoa erakusten da.

## Ohar garrantzitsuak:

- **Gorri errore oso larriak dituztenak.** Erroreen zutabearen arabera ere iragazi daiteke.
- **Faktura mota:** erraztua, osoa, zuzentzailea edo ordezkoa den. Ordezkoak (F3) ez dira kontuan hartzen zerga datuetan. Erakutsi erakusten dira, baina ez dira kontuan hartzen. Faktura erraztuak egunka multzokatzen dira (24:00ak arte), eta lehenengoaren eta azkenekoaren zenbakiak adierazten dira.
- Faktura **baliogabetuak:** identifikazioa erakusten da, baina zenbatekorik ez, eta "Baliogabetua" adierazten da.

## ZUTABEEN ZERRENDA ETA AUKEREN DESKRIBAPENA

|   | Zutabea                     | Azalpena   |
|---|-----------------------------|--|
| A | Ekitaldia                   | ERAGIKETAREN DATARI dagokion likidazio hilabetea eta ekitaldia esleituko dira.   |
| B | Hilabetea (sortzapen aldia) | Salbuespenak. JAULKITZE DATARI dagokion ekitaldia eta likidazio aldia esleituko zaizkie honako hauei:<br>- R1, R2, R3, R5 faktura zuzentzaileak (14, 15 ez den BEZaren araubidearen gakoa dutenak).<br>- F1, F2 eta R4 motako faktura negatiboak (banakapen guztiak negatiboak, VT zenbateko ez-zergapekoa izan ezik), eta 14, 15 ez den BEZaren araubidearen gakoa dutenak. |
| C | Jaulkitze data              |  |
| D | Eragiketaren data           |  |
| E | Saila                       |  |
| F | Faktura zk.                 |  |
| G | Lehenengo faktura           | Sailaren eta jaulkipen dataren arabera multzokatutako faktura erraztuetan, multzoaren lehenengo eta azken fakturak erakusten dira, jarritako jaulkitze orduaren arabera  |
| H | Azken faktura               | Faktura osoetan, zutabe hauek hutsik geratzen dira.  |
| I | Hartzailearen herrialdea    |  |

| J  | Hartzailearen id.                              | Hartzailearen IFZ edo identifikazio kodea                       |   |
|----|--|---|---|
| K  | Izen-abizenak/Sozietatearen izena              | Hartzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena             |   |
| L  | Hartzailearen posta kodea                      |   |   |
| M  | Fakturaren deskribapena                        | Fakturaren deskribapena   |   |
| N  | 1 araubidearen gakoa                           | BEZaren araubideen eta zerga garrantzia duten eragiketen gakoak |   |
| O  | 2 araubidearen gakoa                           |   |   |
| P  | 3 araubidearen gakoa                           |   |   |
| Q  | Banakapen mota                                 |   | Fakturaren araberako banakapena   |
|    |  | EB  | Ondasunak ematea. Eragiketaren araberako banakapena                                 |
|    |  | PS  | Zerbitzuak ematea. Eragiketaren araberako banakapena                                |
| R  | Eragiketa mota                                 | S1  | Zergapekoa eta salbuetsi gabea, SPARik gabe (subjektu pasiboaren alderantzizkatzea) |
|    |  | S2  | Zergapekoa eta salbuetsi gabea, SPARik gabe (subjektu pasiboaren alderantzizkatzea) |
|    |  | E1  | Zergapekoa eta salbuetsia, 20. art.   |
|    |  | E2  | Zergapekoa eta salbuetsia, 21. art.   |
|    |  | E3  | Zergapekoa eta salbuetsia, 22. art.   |
|    |  | E4  | Zergapekoa eta salbuetsia, 23. eta 24. art.   |
|    |  | E5  | Zergapekoa eta salbuetsia, 25. art.   |
|    |  | E6  | Zergapekoa eta salbuetsia, beste arrazoi batzuk                                     |
|    |  | RL  | Ez-zergapekoa, lokalizazio arauengatik  |
|    |  | OT  | Ez-zergapekoa, 7. eta 14. art., beste   |
| IE | Ez-zergapekoa, baina atzerriko zerga           |   |   |
| VT | Hirugarrenen salmentak, ordeztutako zenbatekoa |   |   |
| S  | Oinarria/Zenbatekoa                            | Zerga oinarria / Ez-zergapeko zenbatekoa                        |   |
| T  | Mota   | Zerga tasa  |   |
| U  | Kuota  | BEZaren kuota   |   |
| V  | BEren tasa                                     | Baliokidetasun errekarquaren tasa                               |   |
| W  | BEren kuota                                    | Baliokidetasun errekarquaren kuota                              |   |
| X  | Fakt. zenb. guzt.                              | Fakturaren zenbatekoa, guztira                                  |   |

| Y | Faktura mota | F1  | Faktura osoa  |
|---|--------------|-----|---|
|   |              | F2  | Faktura erraztua  |
|   |              | F3  | Faktura erraztua ordezteko jaulkitako faktura   |
|   |              | R1S | Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea. Zuzenbidean eta BEZari buruzko Foru Arauaren 80 Bat, Bi eta Sei art. oinarritutako errorea |
|   |              | R1I | Aldeengatik zuzendutako faktura. Zuzenbidean eta BEZari buruzko Foru Arauaren 80 Bat, Bi eta Sei art. oinarritutako errorea         |
|   |              | R2S | Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea. BEZari buruzko Foru Arauaren 80 Hiru artikulua   |
|   |              | R2I | Aldeengatik zuzendutako faktura. BEZari buruzko Foru Arauaren 80 Hiru artikulua   |
|   |              | R3S | Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea. BEZaren Foru Arauaren 80 Lau artikulua   |
|   |              | R3I | Aldeengatik zuzendutako faktura. BEZaren Foru Arauaren 80 Lau artikulua   |
|   |              | R4S | Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea. Gainerakoak  |
|   |              | R4I | Aldeengatik zuzendutako faktura. Gainerakoak  |
|   |              | R5S | Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea. Faktura erraztuetan.   |
|   |              | R5I | Aldeengatik zuzendutako faktura. Faktura erraztuetan.   |

|    |                             |   |   |
|----|-----------------------------|---|---|
| Z  | BE/ERRAZ                    | Baliokidetasun errekarquaren araubidean edo araubide erraztuan jaulkitako faktura den zehazten duen marka |   |
| AA | Jasandako atxikipena        |   |   |
| AB | Oinarri zuzendua            | Ordezkapen bidezko faktura zuzentzaileetan, zuzendutako zenbatekoak adieraz daitezke.                     |   |
| AC | Kuota zuzendua              |   |   |
| AD | BEren kuota zuzendua        |   |   |
| AE | Honek zuzendua:             | Zuzenketa egin duen fakturaren identifikazioa adierazten da (saila, faktura zenbakia, jaulkitze data)     |   |
| AF | Hau ordeztzen/zuzentzen du: | Zuzendu den fakturaren identifikazioa adierazten da (saila, faktura zenbakia, jaulkitze data)             |   |
| AG | Errorea                     | BAI- Balidazio erroreak ditu<br>EZ- EZ du balidazio errorerik   |   |
| AH | Fakturaren egoera           | Baliogabetua  | Faktura baliogabetze fitxategi baten bidez baliogabetu da |
|    |                             | Zuzendua  | Faktura zuzendu da  |
|    |                             | Zuriunea  | Gainerako kasuak (ez dago ez baliogabetuta, ez zuzenduta) |

(Q, R, S, T, U, V, W eta Z zutabeak: faktura beraren banakapen mota desberdinak dira. Gainerako zutabeak faktura bereko lerro guztietan errepikatzen dira)